

Etika Publikoko Batzordea

9/2015 gaia

EUSKO JAURLARITZAKO (...)AK (...) ANDREA, INSTRUKZIO-EPAITEGIAREN AURREAN IZAPIDETZEN DIREN (...) AURRETIKO EGINBIDETAN INPUTATU MODURA DEKLARATU OSTEAN, (...)KO ZUZENDARI MODURA IZENDATZEARI BURUZKO ARGITALPEN OFIZIALA DELA ETA, EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO AKORDIOA

1- 2015eko uztailaren 4an igorritako posta elektronikoz, interesdunak kontsulta bideratu du Etika Publikoko Batzorde (EPB) honetara, (...) andrea, Instrukzio-epaitegiaren aurrean izapidetzen diren aurretiko eginbidetan inputatu modura deklaratu ostean, (...)ko zuzendari modura izendatzeari buruzko argitalpen publikoarekin lotuta.

2- Kontsulta jasotzen duen idatzian adierazten denez, (...)ko Gobernuaren Kontseiluak (...)ko zuzendari izendatzea adostu zuen "ikerlari eta irakasle modura ibilbide sendoa izategatik, nazioartean eragin handikoak diren aldizkarietako argitalpenekin egiaztatzen dena". Gainera, "(...)ko Gobernuan hainbat ardura" izan ditu. Posta horretan saioko aktaren kopia bat atxikitzen da. Bertan aipatzen denez, deliberazio labur baten ostean, funtsean hautagaiaren trebetasun pertsonal eta profesionalak goraipatzeko, izendapena "aho batez" erabaki zen.

3. Izendapen hori aplikagarria den arau-esparruan kokatze aldera, kontsultaren egileak bere idatzian azpimarratzen duenez, (...) sortzeko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, zuzendaria lau urteko -denbora hori luzatu egin daiteke- epealdi baterako izendatzen du Gobernuaren Kontseiluak "bertako lehendakariak hala proposatuta", eta hark ezin du bere kargua enkaitzea hautaz erabaki "agintaldia indarrean den bitartean". Koadroa osatzeko azpimarratzen denez, (...) artikuluan ezarritakoaren arabera, (...)ko Gobernuaren Kontseiluko presidentzia gai horretan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako (...)aren kargua betetzen duen pertsonari dagokio; hau da, kasu honetan, kontsultaren egileari berari.

4- Behin izendapena gauzatuta, baina EHAAan argitaratu aurretik -izendapenak ondorio guztiak izan ditzan ezinbesteko betekizun formala-, (...) andrea epaitegietara deitu zuten, Instrukzio-epaitegiaren aurrean inputatu modura deklaratzeko. Deialdi hori aurretiko eginbide batzuekin daude lotuta, aipatu organo judizialak irekiak (...)aren instantziei jarraituz, zeinak auzi-jartze bat aurkeztu baitzuen (...) andrearen aurka, (...) akusaziopean.

5- Egoera hori berehala jakinarazi zion (...)ak (..)ari -eta, aldi berean, Gobernuaren Kontseiluaren lehendakaria- 2015eko otsailaren 24ko posta elektronikoz. Bertan izendapenaren argitalpen ofiziala atzeratzea eskatzen zen, besteak beste, arrazoi hauek zirela medio:

“...bat-bateko kontu jakin bat suertatu zait, nolabaiteko arreta eskatzen duena. Joan den astean jakinarazpen judiziala jaso nuen martxoaren 6an Epaitegira deklaratzera joateko eskatuz, nire aurka jarritako auzi-jartze bat dela medio. Auzi-jartze zehatz horren helburua (pertsona horrek 6 prozesu judizial abiarazi ditu eta bakar batean ere ez du aldeko ebazpenik jaso) nik sinatutako ziurtagiri bat faltsutzat deklaratzera da. Ziurtatzen dut ziurtagiri hori existitzen dela eta baita Gobernuaren Kontseiluan hartutako zenbait erabakiren existentziarik eza ere. Itxuraz, ziurtagiri horrek bere interesen aurka ebatzi izan du beste prozesu batzuetan. Uste dut horixe dela nire aurkako auzi-jartzearen lehen eta azken arrazoia. Jakina denez, kasu honetan nire deklarazioa inputatu modura egin behar da ezinbestean. Ziur nago prozesu hau oso laburra izango dela eta gaia luzamendu handirik gabe artxibatuko dela. Nire deklarazioan prozesu bat aipatu beharko da modu sinple eta ulergarrian, une hartan nire ardurapean zegoen (...)ko Gobernuaren Kontseiluen jarduteen inguruan zalantzarik utzi gabe. Hori dela eta, prozesu honek erabateko dedikazioa izateko nire ahalmena atzeratu egingo du”

6- Sei hilabete igaro ondoren, ordea, aurretiko eginbideak artean irekita zeuden. Maiatzaren 29an Instrukzio-epaitegiko magistratu titularrak Erabakia eman zuen, Ministerio Fiskalari eskatuz "dagokion txostena eman dezala prozedurarekin jarraitu behar den zehazte aldera". Ministerioak deklarazio gehiago egin daitezela onartu zuen, ziurren, iraila baino lehen gertatuko ez dena.

7- Testuinguru horretan, (...)ko Gobernuaren Kontseiluak bilkura egin zen berriro 2015eko ekainaren 15ean, eta organoaren lehendakariak, EPB honetara igorritako idatzi batean adierazten zuenez, "zuzendaritza berriaren auzia planteatzen da berriro, Gobernuaren Kontseiluak (...) andrea [...] zuzendari modura izendatu duela, baina izendapen hori oraindik argitaratu ez dela eta" Bilkura horretako aktan -kontsultaren egileak, era berean, posta elektronikoan atxiki duena- adierazten denez, gai hori gai-zerrendako 2. puntuan jorratu zen, horrela:

“(...)ak zuzendaritza berriaren gaia planteatu du. Gobernuaren Kontseiluak (...) izendatu zuen zuzendari berritzat joan den otsailaren 6an, Kontseiluko Lehendakariak hala proposatuta. Zuzendari berriak hainbat astetako epea eskatu zuen, lehenik eta behin, zenbait konpromiso ixteko eta, bigarrenik, deklaratzera deituta parte hartu duen ikerketa judizialeko aurretiko eginbideen eboluzioa ikusteko. Hori dela eta, atzeratu egin zen izendapen horren argitalpena EHAA-n. Aurretiko eginbideen eboluzioa aintzat hartuz, ez dirudi urte amaiera baino lehen amaituko direnik.

Kontseiluan atzerapen horren ondorioz sortutako egoera eztabaidatu da. (...) jaunak adierazi du behin zuzendari berriak eskatutako epea igaro ondoren,

Kontseiluak hartutako erabakia eta izendapena ez direla prozesu judizial horren atzerapenera baldintzatu behar eta, horregatik, (...)ak izendapena argitaratzearen alde mintzatu da. Halaber, gogorarazi du (...)ak bere independentzia mantendu behar duela, hori bere akreditaziorako ezinbesteko betekizuna izanik gainera.

(...)a eginbideen atzerapenagatik kezkatuta agertu da eta adierazi du nahiago duela Gobernuan bertan kontsultatu atzerapen judizialak ondorioen bat izan beharko lukeen. Zuzendariaren estatusaren inguruan eztabaidatu da. (...) legean erreparatu da, non 8. artikuluan espresuki adierazten den honakoa: *“Gobernuaren Kontseiluak izendatzen du zuzendaria, hartako lehendakariak hala proposatuta, kompetentzia eta esperientziarekin lotutako irizpideei jarraituz”*.

Beste baldintzarik adierazten ez denez eta izendapena Gobernuaren Kontseiluari dagokion eskumena denez, Kontseiluko kideak ados daude otsailaren 6an izendapenari dagokionez hartutako erabakiarekin eta argitaratzea eskatzearekin.

(...)ak, gainera, adierazten du egoera ikusita Eusko Jaurlaritzan kontsultak egitea gustatuko litzaiokeela argitaratu aurretik. Horrenbestez, gai hori etenik geratzen da Kontseiluko Lehendakariak egiteko kontsultak burutu arte”

8.- Baina, akta irakurtzean, ikus daiteke gai hori berriro aztertu zela gai-zerrendako 3. puntua jorratu zenean. Une hartan, artean (...)ko zuzendari zenak "baliabide ezagatik gauzatzen ari ez diren jardueri" buruzko txosten bat aurkeztu zuen. Eta hemen interesgarri denari dagokionez, aipatu txostenean (...)ak Gobernuarekiko zuen independentzia adierazten zen.

“alderdi horrek kalifikazio handiena jaso zuen bisita-txostenean eta (...)aren ondorengo ebazpenean, egiaz konprometiturik dago funtsezko bi alderditan: [...] Bigarren kontua, EHAAn argitalpena hautaz erabiltzea Gobernuaren Kontseilu honen akordioa ez gauzatzeko, izan ere, ez zegoen inolako eragozpenik Zuzendari posturako izendatutako pertsonak izendapena argitaratzeko. Bi alderdi horiek kontuan hartzekoak dira, izan ere, urtebete barru (...)aren jarraipenerako txostena idatzi beharko da, eta oso zaila izango da justifika ezin dena justifikatzea.

9.- Aurreko puntuetan izkiriaturiko aurrekarietatik ondorioztatzen denez, kontsultaren egileari honek eskatu zion organo kolegiatuak berak 2015eko otsailaren 6an baliozko modura adostu zuen izendapen bat EHAAn berehala argitaratzeko -gogoraraziz gainera argitalpen hori, neurri handi batean, (...)ari Eusko Jaurlaritzatik aparteko organismo modura eman zitzaion kalifikazio handiena mantentzen jarraitzeko aukeraren baitan dagoela- baina, beste alde batetik, EHAAn argitaratzearen zuzentasun etikoaren inguruan zalantza egiten du, izendapen publikoa prozedura penal batean inputatu modura deklaratzera deitua izan den pertsona bati dagokionean. Eta dilema horrek ekarri du EPB honetara iritsi den kontsulta.

10.- Hori horrela, hauxe da EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren idatz-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, hartu duen

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Etika eta Jokabide Kodea, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Xede horiek betetzeko, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta antzekoei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargudun publikoek eta antzekoek zein bere xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3. paragrafoak EJKren lehen tartekian ezarritakoaren arabera, EPB bera da organo eskuduna «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko».

II.- EPB-K AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA

1.- Kontsultara eramandako eta aztertu beharreko lehen alderdiak kasuaren gainean ebazteko EPBak duen eskumenarekin du zerikusia. 8/2015 Akordioan argi uzten genuen EJK-k soilik

bertako 2. idatz-zatian zehaztutako kargu publikoen gainean duela indar loteslea, kargu horiek kasu bakoitzean legez ezarritako prozeduraren arabera izendatzen direnetik eta hartarako atxikimendua formalizatzen dutenetik aurrera. Kodearen 18.3 puntuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz ezarri ere: "Kodeari banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikoek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

2.- Akordio horretan, era berean, azpimarratu genuen EJKren aplikagarritasun-eredu subjektiboa ez duela funtsean aldatu ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak. Arau horretako 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan, "kargu publikoen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak" jasotzen dira, eta printzipio horiek jarraibide berdinen baitan arautzen dira: 2. artikuluan zehaztutako eta 4. artikuluan jasotzen den "kargu publikoen katalogoan" barneratutako kargu publikoak soilik lotzen dituzte, kargu publiko horiek ofizialki izendatu eta Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren.

3- Aurrekoak zera esanahi du, EPB honek jardun aurretik, EJKren aplikagarritasun-baldintza subjektibo horiek eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzeko Legea aplikatu behar zaizkiela Batzorde honek ebatzi beharreko jokabide moral edo dilema etikoak dituzten pertsonen. Arau horrekin bat etorritik, EPB honek sarritan hartara eramandako kontsulta edo salaketak ez onartzea ebatzi du, bere jardute-eremu subjektiboa gainditzen zutelako (ikus, adibide batera, 1/2015 eta 8/ 2015 Akordioak).

4.- Kontsultaren egilea EJKan ezarritakoaren baitan dago argi eta garbi, izan ere, Akordio honetako 1. eta 2. puntuetan aurreikusitako betekizun subjektibo guztiak betetzen ditu: Dekretuz izendatu zuten, 2013ko ekainean EJKren atxikipenerako deklarazio normalizatua sinatu zuen, II. eranskinean argitaratua, eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzeko Legearen aplikazio-eremuan (2.1. a artikulua) eta, horrenbestez, azaroaren 18ko 216/2014 Dekretuz onartutako eta martxoaren 31ko 39/2015 Dekretuz eguneratutako kargu publikoen katalogoan sartzen den kargu publiko bat betetzen du.

5.- Haatik, kontsultan aipatzen den pertsonaren kasuan, ez ditu oraindik EJKaren baitan eta bere portaera etikoa ebaluatzeko EPB honek duen eskumenaren baitan dagoela berresteko betekizun subjektibo guztiak betetzen. Akordio honetako sarreran azpimarratu denez, (...) andrea zuzendari izendatu du hori egiteko eskumena duen organoak -(...)-ko Gobernuaren Kontseiluak- eta horretarako ezarritako legezko prozedura betez: organo horretako lehendakariak hala proposatuta. Bestalde, izendatu zaion kargua -Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko bateko zuzendaria- Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzeko Legearen aplikazio-eremu subjektiboaren (2.1. c artikulua) eta EJKren (2.1.

c artikulua) barnean sartzen da eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazka arautzeko Legearen 4. artikuluan jasotzen den katalogoan, jatorrizkoan nahiz eguneratuan, argitaratutako zerrendan agertzen da.

6.- Dena den, aztergai dugun kontsulta gauzatu da izendapenak ondorio guztiak izateko lege egin beharreko azken izapidea -EHAAn argitaratzea- atzeratu egin zelako, inputatu modura deklaratzeko prozedura penala amaitu arte, interesdunak hala eskatuta; izapide hori hasiera batean uste zena baino gehiago atzeratu da. Horrenbestez, (...)ko Gobernuaren Kontseiluak 2015eko ekainaren 15ean berriro bilkura egin zuen eta (...) zuzendari izendatzeko erabakia berretsi zuen eta, era berean, izendapena EHAAn berehala argitaratzea eskatu.

Hortaz, gaur egun, (...)ak ez ditu osorik betetzen EJKren baitan egoteko eta EPB honi bere portaera etikoaren inguruan ebaztea -kontsulta edo salaketa bidez- onartzeko betekizun subjektibo guztiak, izan ere, EHAAn izendapena argitaratzea ezinbesteko izapide formala da aipatutako ondorio guztiak izan ditzan.

7.- Hala eta guztiz ere, kasu honetan eta salbuespen modura, uste dugu kontsulta ez dugula ezonargarriztat hartu behar. Lehenik eta behin, guregana ekarri den gaiaren dimentsio etikoak kontsultaren egileari ere eragin ahal diolako, 4. puntuan ikusi den moduan, hura EJKren baitan egoteko betekizun subjektiboak betetzen badira. Eta bigarrenik, izendapena EHAAn argitaratu eta EJKren baitarako atxikimendua formalizatzen duen -jakina, horiek betetzen badira- unetik aurrera (...)ak errespetatu beharreko jarraibide etikoetatik harago, prozedura penal batean inputatu modura deklaratzera deitutako pertsona baten izendapenari publizitate ofiziala emateak inplikazio etiko batzuk izan ditzakeelako, hemen saihestu ezin ditzakegunak. Gaiaren salbuespen egoerak -ez da ohikoa EJKren baitako pertsonen izendapena beren aplikazio-eremu subjektibotik egotzitako pertsonen osatutako organoen ardura izatea eta izendapenaren argitaratze ofiziala EAEko Administrazio Orokorreko kargu publikoen ardura izatea- kasuari salbuespeneko tratamendua ematea justifikatzen du, eta tratamendu horrek, 1/2015 eta 8/2015 Akordioetan erabilitako irizpidea alboratzea dakar.

8.- Behin kontsulta izapidetza onartuta, lehenik eta behin, ikus dezagun zer-nolako eragina izango luketen EJKn ezarritakoek (...) andrearengan, bere izendapenaren argitalpen ofizialak (...)ko zuzendaritzari dagozkion eskumenak behin betikoz esleitzea eragingo balu. Eta, soilik hori aztertu ondoren. interesdunak aipatu Kodeko jarraibideak ez urratzeko eman beharreko urratsei buruz erabakiko dugu.

9.- (...) andrea zuzendari modura izendatzeko argitalpen ofizialari buruz sortutako zalantzen jatorria hura inputatu modura instrukzio-epaitegian deklaratzera deitu izana da, delitu baten kausa diren gertaeren ustezko arduradun gisa.

10.- Etika eta Jokabide Kodearen 15 atalak, zeina “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” izenekoak baita, hau arautzen du

bosgarren puntuan: “kargu publikoren bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

11.- Akordio honetako zati handi baten eredutzat hartzen diren 5/2015 eta 6/2015 Akordioetan azpimarratu dugunez, EJPko 15.5. idatz-zatian deskribatzen den balizko gertaeren nahasitako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoek –prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak izatea, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz–, “horren berri eman” behar diote EPB honi. Etika eta Jokabide Kodeak, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarra da, horrelako egoera bat gertatzean, “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela EPBk. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko ekintza bat zehazten du, baina ez du modu zorrotzean xedatzen zer ondorio izango duen ekintza hori egiteak. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeko. Horrek esanahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena Batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten duen erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

12.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, EJKren 15.5 artikulua arautzen du “prozedura izapidetzean” kargua kendu baldin bazitzaion kargudunari eta “egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik”, hau egingo dela kargua kendu zaionarekin: “berriro emango zaio [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Xedapen horren lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du hura. Puntu hau zehazterakoan EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak –“kargua kendu baldin bazitzaion”– argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela, hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela bidegabe karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea. Ez gainerako egoerarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da Etika eta Jokabide Kodeak berariaz prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean inputatutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea bakarrik aipatzen duen arren, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten duenean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori –eta ez besterik–.

13.- Gorago adierazi dugun 5/2015 erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan –bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak– eta

hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoak dira zer hiru aukera zehaztu diren aurreko puntuetan, erabakitzeke, berariaz, prozedura penalen edo administrazio-zehapenen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publikoen izendatzearekin, baldin eta karguduna edo izangaia ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-sententzia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela–, eta egokia dirudi, hasiera batean beti eta irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, bigarrenaren aukeraren alde egitea, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela aurreratutako kondena bat edo gerora etorriko den kondena baten aurrerapena izango kargu publiko bat kautela-neurri moduan kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz, auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako prozedura penal batean, eta bai prebentziozko neurri profilaktiko soila, eredugarritasunaren balioari indarra emateko erabakitakoa, eta, aldi baterako, pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15 artikuluko 5. puntuak arautzen duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikoak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”

14.- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsoneri, harik eta kondena-sententzia irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, estua eta zorrotza baita. Azken kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoengan eta haietan lan egiten duten kargu publikoengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko.

15.- Beste muturrean, erabakitzen baldin bada inputazioaren unean izango dela eredugarritasunaren printzipioa bateraezina kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publiko baterako izendatzearekin, proportziorik gabeko jarduna izan daiteke erabaki hori hartzea – bereziki une honetan, Gorte Nagusiak Prozedura Kriminaleko Legearen aldaketa bat izapidetzen ari den garaian, zeinaren xede den, besteak beste, “legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola, inputatua eta erruztatua, hitz horiek erabiltzen baitira susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak, oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana” (zioen azalpena)–, eta,

neurri batean, bortxatu egin dezake lege-aldaketa horrek babestu nahi duen zigor-arloko bermeen eta prozesu-bermeen kultura.

16.- Akordio honetako 13. puntuan izaera orokorrez hautatutako aukerari dagokionez, ez diogu alferrekoa irizten kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, inputazio batek hemen zirriborro modura emandakoa baino epai etiko zorrotzagoa sorraraz dezake, baldin eta delitu oso larrien ondoriozkoa baldin bada eta/edo alarma soziala eragiten duten baldintzatan gertatu baldin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa abiarazteak ez eragitea EPB honen gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikorekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beraien izaerarengatik, gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

17.- Aztertzen ari garen egoera honetan, ikusi den moduan, argi dago. hasiera batean, EJK-ko 15. ataleko 5. puntuak arautzen dituen egitatezko elementu guztiak biltzen direla, hots, kargu publikoek Etika Publikorako Batzorde honi egoeraren "berri ematekoak".

Horrek zera esanahi du, (...) andrearen izendapena EHAA-n izendatzekotan, zuzendari berriak EJK-rako atxikipena formalizatu behar izango lukeela horretarako ezarritako baldintzak eta epeak errespetatuz eta, segidan prozedura penal batean inputatu modura "eragin publiko bereziki ekintzen ondorioz" deklaratzera deitua izan denez, EPB-ari kontsulta egin beharko lioke, hark "egokien ikusten duen gomendioa" eman dezan.

18.- Haatik, (...)ren inputazioa eragin duen prozedura judizialaren barnean -aurretiko eginbideak- urrun dago ahozko epaiketaren abiaraztea, eta kontuan izan behar da hori dela, hain justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzen hasteko Akordio honetako 13. puntuan ezarri dugun prozesuaren unea, hau da, une horretan komeni da kargu publikoek beraien kargua kautela-izaeraz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

19.- Ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna aztertzea inputazioa gertatu den prozesu penalera eraman den auziaren muina aldeaz aurretik epaitu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, gure egitekoa. Dena den, kontsultaren egileak idatzian aipatzen duenez, aztergai den prozedura judiziala (...)ak jarritako auziaren ondorioz ireki da, zeinak "6 prozesu judizial abiarazi dituen, bakar batean ere aldeko ebazpenik jaso gabe". Bere helburua (...)ak sinatutako ziurtagiri bat faltsutzat deklaratzeko da, zeinaren existentzia eta hartutako zenbait erabakiren existentziarik ere eza ziurtatzen duen. Auzi-jartzea -gaineratzen du kontsultaren egileak- "auzi-jartzaileak bere kontratua amaitzean abiarazitako lan arloko eta auzietako judizio anitzen testuinguruan aurkezten da. Auzi-jartzailearen ustez berez bete beharko lukeen lanpostua ez den beste bat betetzen ariko litzateke eta horren arabera zerbitzuak ematen jarraituko luke, eta hori da, hain zuzen, auzi-jartzearen oinarria. Dena den, auzi-jartzean akusatzen diren pertsonen sinatutako dokumentuetan gezurtatu egiten da hori".

20.- Kotsultaren egileak (...)aren inputazioa eragin duen auzi-jartzearen jatorri, irismen eta edukiaren inguruan emandako azalpenei darien subjektibotasun saihestezinetik harago, deskribatzen diren gertaeretatik ondoriozta daiteke, aurretiko eginbideen ondotik, bere lan-harremana lagunkiro amaitu ez duen pertsona baten ekintza dagoela eta, horregatik, hainbat prozesu judizial abiarazi ditu (...)ko kargu eta arduradun ezberdinen aurka. Horrenbestez, kasu honetan, ez dugu uste Akordio honetako 13. puntuan ezarritako irizpide orokorra aldatzeko arrazoirik dagoenik, hau da, eredugarritasunaren betebeharrak ahozko judizioa irekitzen den uneari lotzean datzana.

21.- Gainera, kasu honetan, ere inputazioa ez da gertatu eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

22.- Kotsultaren egileak adierazitako jokabideari dagokionez, (...) eta (...)ko Gobernuaren Kontseiluko lehendakaria, ez dugu hari etikoki ezer aurpegiratzeko arrazoirik ikusten. Lehenik eta behin, zuzendari kargurako (...) andrea proposatu zenean, hura artean ez zutelako inputatu modura deklaratzera deitu; zitazioa aipatutako Kontseiluak izendapena adostu ondoren gertatu zen, nahiz eta, esan den moduan, izendapena EHAAan argitaratu baino lehen izan. Bigarrenik, (...)ren izendapenaren argitalpen ofiziala egiterakoan izandako atzerapena ez zelako izan kotsultaren egilearen erabaki aldebakarreko eta arbitrario baten ondorio; aitzitik, interesdunak hala eskatuta gertatu zen atzerapen hori, izan ere, 2015eko otsailaren 24an igorritako posta elektronikoz argitalpen hori atzeratzea eskatu zuen, ikuspegi etikotik onargarriak diren arrazoiak emanez, esate baterako, erakundearen irudi ona babestea, eredugarritasun-printzipioa kaltetu gabe. Eta azkenik, Gobernuaren Kontseiluak dagoeneko adostutako izendapena berehala argitaratzeko behin eta berriz eskatzen zuela eta hori justifikatzeko emandako arrazoiaren garrantzia ikusirik -horien artean eta ez arrazoi arinena, hari aitortutako independentzia estatusa zalantzan jartzeko arriskua- kasua EPB honi jakinarazi ziolako, adierazten den izendapena argitaratzeak izan zitzakeen inplikazio etikoei buruzko irizpena eskatuz.

23.- Aurrekoa aintzatetsiz, interesdunak ez du EJK urratzen (...) andrearen izendapena, (...)ko zuzendari modura, argitaratzea bultzatzen badu, hura inputatu modura deklaratzera deitua izan den prozedura judiziala ahozko judizioaren irekierari dagokion fasera iristen ez den bitartean.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

ERABAKIA

- 1.- Interesdunak eta (...)ko Gobernuaren Kontseiluko lehendakariak ez du EJK urratzen (...) andrearen izendapena, (...)ko zuzendari modura, argitaratzea bultzatzen badu, hura inputatu modura deklaratzera deitua izan den prozedura judiziala ahozko judizioaren irekierari dagokion fasera iristen ez den bitartean.
- 2.- Edozein kasutan, Akordio hau (...)ari helarazi beharko zaio, zeinaren iguripen eta eskubideak, (...)ko zuzendariaren kargua gauzatzeari dagokionez, erasan egin daitezkeen bertan xedatutakoaren arabera.
- 3.- Azkenik, (...) andrearen izendapena, zuzendari modura, EHAAn argitaratzea erabakiko balu, aipatu andreak EJKrekiko atxikimendua formalizatu beharko du ezarritako epe eta baldintzetan.
- 4.- Behin EJKrekiko atxikimendua formalizatu ondoren, (...) andreak ez du EJK-ko 15.5. idatz-zatian eskatzen den kontsulta errepikatu beharko, Akordio honetan aztertzen den kontsulta eragin duten prozesu-inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean. Ikusita zergatik egin den inputazioa eta Akordio honetan eman diren azalpenak aintzat hartuta, betetzen ari den karguari euts diezaioke, harik eta, halakorik gertatzen baldin bada, epaile edo auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.
- 5.- Prozedura horren baitan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelazko izaeraz kargugabetzea gomendatzen du EPB honek, EJKren 15.5. idatz-zatian adierazten den moduan.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteizen, 2015eko uztailaren 14an.